

SANTA AGEDA AINTZIÑAKO BIZKAI'KO ERAN

ESKE - BATZEAN

Euskalerrian limosna-billa edo eskean joateko aukerak ugarj izan dira, esaterako Natibitate, Urtebarri ta Apalazio egunetan, eguen zurjan, Santa Ageda'ren aurreko egunean eta desagertutako beste egun askotan.

Orain dala ainbat urte erriko zaar eta gazteak joaten ziran etxerik etxe Santa Ageda batzen eta tokian tokiko kopla zaarrak bertako erreferentziagaz abesten ebezan.

ZELAN ABESTU

Abeslari batek bakarreko abotsean abesten eban eta taldekideek estribilloa edo leloa errepikatzen eben.

Erritmoa markatzeko txiliñak erabilten ebezan, beste leku batzutan arranak be bai.

Urteak joan-ala desagertuz joan zan gure arbaso zaarren oitura eder ori eta urte batzuk dirala abadeak euren kontura erabagi eben Santa Ageda'ren abestia moldatzea, koral batek abesteko modu edo era apain batean ipiñiz.

MODU BARRIA KALTEGARRI

Modu barri orrek alde txar bat dauko, beste askoren artean. Nik kalterik garrantzitsuen lez, auxe aitaturko neuke: Erritarrek graziz beterik abesten ebezan bakoitxaren gorabera; seriotasun larregi emon dautsela abesteko orduan.

Ori dala-ta, aintziñako erako Santa Ageda ber-eskuratu nai izan dot. Orretarako Jon Lopategi bertsolari muxikarrak lagundu nau, berak buruz zekizkin kopla zaarrak abestuz.

Leen bere esan dot eta barriro be esango dot, tokian tokiko kopla zarrak aldatu egiten dirala, erri bakoitzeko gora-beerak iragarten dabezela.

8'ko nagusian daude bertso auek. Gipuzkoa'n ematen dira geinbat.

Zorion etxe ontako denoil
Oles egitera gatoz:
aterik arte, oitura zarra
aurten barritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz
ezta ere oiñetakoz:
baña eztarriz sano gabiltza
ta kanta nai degu gogoz.

Santa Ageda bezpera degu
Euskalerriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna.
Santa Ageda maitea gur artu degu
gure bideko laguna,
aren laguntzaz bete gentzake
egun ontako jarduna.

BIZKAI'KO KOPLA ZAARRAK

Leen alpatutako Bizkai'ko kopla zaarrak emen doaz, guztjira amaika bildu dodaz, baiña geiago bere ba dira.

Euren berezitasunetariko bat zera da: Kopla batzuk iru errima daukiez eta beste batzuk, ostera, bi besterik ez. Iru errimakoak gozoago emoten dabe belarrira.

Bertsoak edo kopla zaarrak ez dira egundo be irakurten, abestu baizik. Abestu nai ba'dozue, doiñua "Egun da Santi Mamiña" erabil dezakezue.

Beste barik emen doatzue kopla-sorta.

1		6
Bedeinkatua izan dedila etxe ontako jentea pobre ta umil dabiltzenentzat } badauke borondatea }	Bis	Sentitzen zaitut sentitzen jagiten zelan zabiltzen zure ointxuen txiplitinotsak sala barria astintzen
2		7
Santa martiri maitea dago errukiz betea berak alkantza daigula danoi osasuna ta bakea		Etxean bada Patxiko ez det oraindik etsiko ez ote zaigu tardatu gabe limosnarekin jetsiko
3		8
Zeru altuan izarra errekondoan leizarra etxe ontako nagusi jaunak urregorritzko bizarra		Orrelakorik ez da egiten santaeskeko langintzan karien kara jarri bazina enamoratuko nintzan
4		9
Urregorritzko bizarra eta diamantezko espalda erreal txikiz egingo leuke eleizara;no kaltzada		Amaseikoa zillarra zala larogei peseta ditu, guri pare bat emonagaitik } irurogeitaz gelditu. }
5		10
Errekondoan urtetan dabe udebarrian pitxiak arexek baino politagoak Maritxu zure begiak		Esku bation argja bestean lukáinka paria, arel bieri gitxi eretxita altzoan dozena arrautzia. }
	11	
	Solomogarri luzje aren koipien dultzie, zatirik kentzen ibili barik } ekarri egizu guztie. }	Bis